


A cartoon illustration of a young girl with short black hair, large blue eyes, and a purple top, peeking from behind a yellow banner.

# Zertan mesedetzen gaitu erantzukizun konpartituak ?

Emakume eta gizonen arteko harremanen eredu berria lortzea, etxeko lanak eta zaintza lanak benetan banatu daitezzen. Eredu berri hau lortuz gero pertsona guztiok geure asmo pertsonal eta profesionalak asetzeko moduan egongo gara, emakume zein gizon izan.

A cartoon illustration of a man with black hair and a beard, wearing a red and white striped shirt, looking up at the banner.

**Getxo**  
UDALA - AYUNTAMIENTO

# Badirudi...

... gero eta emakume eta  
gizon gehiagok banatzen dituztela  
etxeko lanak.



# Baina, errealitatea hau da:

Euskal Autonomi Erkidegoan emakumeek etxeko lanen %70 baino gehiago egiten dute.

EAEn, gizonek egunean, batez beste, 1,5 ordu eskaintzen dizkiete etxeko lanei, emakumezkoek, berriz, 4,3 ordu.

**Langabezian daudenean**, gizonek 2 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, eta emakumeek 4 ordu eta 31 minutu.

Iturria: Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003. Eustat.



# Badirudi...

... **gaur egun** emakumeek eta gizonek denbora berdintsua hartzen dutela umeak eta adinekoak zaintzeko.

... **gazteek** nekez hartzen dutela parte zaintzan.





# Baina, errealitatea hau da:

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzale nagusiak %84 emakumezkoak dira.


Iturria: Mendetasunaren Liburu Zuria, 2004.

**Bizkaian, aiten %2,9ak bakarrik eskatu zuten aitatasun baimena 2007. urtean.**

Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, 2006.

**Neska-mutilen parte hartzea ezberdina da. Mutilen %6,5ak zaintza lanetan parte hartzen du. Nesketan, berriz, %21,5 da portzentajea.**

Iturria: Denbora Aurrekontuen Inkesta, 2003. Eustat.



# Badirudi...

etxean lan egiteak denbora libre gehiago izatea dakarrela, geure kasa antolatzen garelako eta ez daukagulako ordutegi finkorik.



# Baina, errealitatea hau da:



Gizonezkoek egunean 5,22 orduz egiten dute lan batez bestez (produkzioan zein etxeko lanetan eta zaintzan). Emakumeek, aldiz, 35 minutu gehiago egiten dute, batez bestez 5,57 ordu. Urtean, emakumeek bi ordu gehiago egiten dute lan. Bizitza osoan, zortzi urte lirateke.

Iturria: “Denboraren balioa eguneroko bizitzan”  
Maria Ángeles Durán. Soziologiako katedraduna eta  
Ekonomiako irakaslea CSICen.

# Badirudi...

... emakumeak lan merkatuan sartzen direla,  
gizonezkoen baldintza berdinetan.





# Baina, errealitatea hau da:

Emakumeek egiten duten lana gizonen lanaren “osagarritzat” jotzen da oraindik, eta horregatik gutxiago ordaintzen diete. Horrela, EAEn, emakumeen batez besteko soldata gizonezkoena baino %18 txikiagoa da.

“Famili zamak” oraindik ere lana lortzeko eta aurrera egiteko oztopo dira.

EAEn, emakumeen %25ak lanaldi partzialean dihardute. Gizonen %3a bakarrik ari da lanaldi partzialean.

Iturria: EAerako datuak. INE, 2008ko 3. hiruhilekoa.



## Nola alda dezaket egoera hau?

Etxeko lanetan eta adineko pertsonen zaintzan banaketa desorekatua oso errotuta dago jendarte honetan. Egoerari buelta emateko, maila ezberdinetan aldaketak gertatu behar dira:

- Jendarte osoan denbora berrantolatu behar da.
- Zaintzarako komunitateko zerbitzu gehiago egon behar dira.
- “Zaintzaren etikari” garrantzi handiagoa eman behar zaio. Jendartearen erdialdean bizitzaren zaintza ipini behar da, produktibitatea edozein preziotan saritu beharrean.
- Emakumea zaintzailatzat jotzen duten rola eta estereotipoak baztertzea.
- Familia mota ezberdinak daudela onartzea eta, beraz, behar ezberdinak kontuan hartzea.

## Baina, aldaketa horien alde borrokatzen

- Etxeko pertsona guztien artean bizikidetzara arau batzuk adostu ditzakegu.
- Negoziazioak, itunak..., pertsona guztiek modu bidezko eta parekide batean eman eta har dezaten.
- Gainerako pertsonengan konfiantza mantentzea eta bultzatzea.
- Norberaren beharrezkoak betetzea (“nire gauzak”), baina gainerakoengan eragina daukaten erantzukizunak ere hartzea (“ogia erosi, harrikoa egin”).



## dugun bitartean, zerbait gehiago egin dezakegu:

- Jarrera positiboa eta komunikazio ona mantentzea:
  - Nigatik egiten dituzten gauzak eskertzea.
  - Pazientzia eta errespetua izatea gainerakoek gauzak egiteko duten moduarekin.
- Beti kritika eraikitzaileak egitea.
- Gauzak argi eta garbi esatea, atsegin ditudanak eta ez ditudanak.



Bakoitzak berea,  
denok batera!

